

Unai Mendizabal Lekuona

A maila • **Aipamena**

Unai Mendizabal Lekuona naiz, Zegaman jaioa 2005eko maiatzaren 2an. Gaur egun, Txindokin dihardut batxilergoko lehen mailan ikasten. Gogoko dut korrika egitea eta bidaiatzea.



UMETAN BEZALA

-...eta orain, goazen kirolen tartearekin. Ez dute astebukaera ona izan euskal taldeek, Jon. -Ez, hala da; izan ere, galdu egin zu-

Telebista itzali zuen Martinek, albistegiaz gogaituta eta ondoan eseri zitzaion bilobaren presentziaz oharturik. Laster antzeman zion Aiurrek jarraian zetonerrari, ez baitzen hura gertatzen zen lehen aldia. Hala ere, sukaldetik zetorren saiheski usainak baretuta-edo, pazientziaz hartzea erabaki zuen.

-Aizak, kontatu al diat inoiz Urmintzan izan nintzenekoa? -galdetu zion aitonak, ihardesteko aukerarik eman gabe- Bada, kontatuko diat.

“Zer erremedio” pentsatu zuen gazteak, kontu hartaz zuen interes falta ezkututzen zuen bitartean. Hasi zen Martin sermoiarekin: “Garai hartan, 20 urte nituela, elektrizista sartu berri nintzen Luz de Vizcaya-n; ongi ordaintzen zutelako fama zuen enpresak. Horrela, Urmintzako instalaziora bidali ninduten, inork nahi ez zuen lantokia omen zen eta hura, nonbait. Beraz, maletetan nire ondasun eskasak bildu eta gurasoei agur esan ostean, goizeko lehen trena hartu nuen lanean hasteko.

Abiatu zen trena seiak puntu-puntu Tolosatik, eta pasa genituen -hobeto esanda, nituen, trena erabat hutsik baitzioan- Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo... Sei eta erdiak ziren hartan, trenak azkenekoz zapaldu zuen balazta, iritsia zelako azken geltokira: Urmintzako geltokira. Maleta hartu eta jaitsi nintzen trenetik, bitartean langileak begiradaz ‘nolatan hoa herri horretara?’ galdetu nahi balit bezala. Geltoki zaharretik irten eta herria zeharkatzeari ekin nion; izan ere, herriaren beste aldean nuen enpresak utzitako bizitoki berria, instalazioen ondoan. Behe-laino lodia zen goiz hartan, bertakoek sakalainoa deitzen ziotena, eta etxe zurien artean...”

Apurka-apurka, Aiur istorioari geroz eta kasu gutxiago egiten hasi zen, entzuteari erabat utzi arte, aitonaren erritmo gehiegiz lasaiak asperturik. Urmintzako etxeen bitxikeriez ari zela, ezustean harrapatu zuen biloba:

-Zer iruditzen zaik? -nerabearengandik literatura-analisia espero balu bezala.

-Beno... -Aiurrek, zer esango pentsatuz. Aitonak, hasperen egin eta gero, honela jarraitu zuen:

“Hala, gosaltzera joan nintzen herriko taberna bakarrera, itxuraz herriko ehun fabrikako jabearena zena. Bertan, sartu orduko, kalean ikusi ez nituen biztanle guztiak niregana itzuli ziren bekokia zimurtuz, Afrikatik ekarri berria zen elefantea banintz bezala. Tabernariarengana hurbildu eta ebakia eskatu nion, berak deus esan gabe atera zidana. ‘Hau da herri xelebrea!’, pentsatu nuen, ondoren ‘tira, ohituko haiz, Martin, gaztea baihaiz’ esanez kontsolatuz. Ezin nintekeen okerrago egon.

Egunak joan eta egunak etorri, hain zen bitxia herriko giroa, ezen egunero harritzen nintzen, nahiz eta gauero oheratzean harrituko ninduen ezer geratzen ez zela esan nire buruari. Izan ere, herritarrek portaera ezohikoa; zenbaitentzat, ulergaitza, zuten: lan kaskarra zuten -osasuna hondatu eta bizirauteko besterik ematen ez ziena-, asko eta asko bakardadean bizi ziren, inolako konpainiarik gabe; hala ere, zoriontsu ziren. Nik, ordea, ez nuen haiek bezala amaitu nahi, zorion hari hutsa baineritzon. Horrela, herri xelebre hartako guztiak ere ez zirela berdinak pentsatuz, mintzalagunen baten bila abiatu nitzen. Bai eta aurkitu ere.

Joxe ni baino urte pare bat zaharragoa izango zen, handia eta sendoa, baserriko lanetarako aproposa. Aldarteari zegokionez, Urmintzan jaioa izan arren, ez zen urmintzarra, ez baitzen bertako jendearen utzikeriaren eta pasibotasunaren isla. Izan ere, arras egoskorra zen; ez zion gustatzen ez zitzaionari men egiten, horrek ondorio lazgarriak izanda ere. Behin, afalostean izaten genituen solasaldi amaigabeetako batean, honela azaldu zidan herri hartako egoera:

-Hemen, hango hark agintzen dik, -ehun fabrikako jabearen etxea zegoen muinoa hatzaz seinalatuz- eta kito! Berak ematen ziek urmintzarrei jatekoa eta entretenimendua, eta guztiek jainko onberatzat zuten. Ez zituk, alabaina, ohartzen ardiz jantzitako otsoa dela: denak hankapean hartuta dizkik, bizitza miserable honetan betiko giltzapetuta. Gainera, horretarako imajina ezin ditzakekenak eta gehiago egiten dizkik.

-Hori hala baduk, zer edo zer egin beharra zegok! -Esan nion nik, zeharo asaldatuta.”

“Hara, badoa orain ere aitona Martin mundua salbatzera” pentsatu zuen Aiurrek, zeinek ez zuen Martinen hitz bat bera ere sinesten. Hartaz guztiaz, lagunek harrotutakoan zioten bezala, “potrotaraino eginda”, aitonaren isilunea aprobeztatu eta sofa zaharretik altxatu zen, pauso azkarrez -aitonak geldi ez zezan- atea ireki eta alde eginez. Martin atsekabetuta geratu zen bere bilobaren jokaera zakarraren aurrean eta, hontzak ilargirik gabeko gaueko zeru ilunari begiratzen dion bezala, telebistako pantaila beltzari begira geratu zen, pentsakor.

Jauzi egin zuen ohean Aiurrek. Ingurura begiratu zuen logelako itzalen artetik munstroren bat ateratzea espero balu bezala eta, hasierako trantze haren ostean, pentsamendu lasaigarria piztu zitzaion buruan: “ametsa zen”. Ondorengo minutu erdian, izerditan blai, bihotz taupadak geroz eta leunagoak eta kopuruz urriagoak egin zitzaizkion, arnasa ere bere ohiko maiztasunera itzultzen zitzaiola. Zer amestu ote zuen? Ezin gogora zezakeen. Hala ere, barruak gauza bakar bat eskatzen zion momentu hartan: aitonari bisita zor zion.

Goizean, azkar gosalduta eta herriko kale hotzak zeharkatu zituen. Hamar minutuko ibilaldiaren ondoan, “3B” zioen tekla zapaldu eta “ni naiz, Aiur!” esan zuen ahots apalez. Eskaileratan

gora zihoala, mila burutapen eta kezkek bete zuten gazte umilduaren kontzientzia: zer esango oten zion Martini? Azkar arindu zitzaizkion arazo haiek, atean zain zuen aitonak lezioa eman duenaren irribarre ase zein bihurriarekin agurtu baitzuen. Egongelara pasatzeko gonbitari jaramon egin eta han zeuden berriro ere aitona eta biloba, parez pare. Aiur, bera joan zitzaionez bisitan aitonari, hasi zen hizketan:

-Zera... Urmintzako istorioak nola jarraitzen duen jakin nahi nuke.

-Kontatuko diat ba. -Esan zuen Martinek, irribarre bihurria oraindik ere ahoan zuela.

“Gau batean, urmintzarrak tabernatik erretiratuak zirela, Joxe eta biok ehun fabrikara joan ginen, fabrikako nagusiak han zerbait gordetzen zuelako susmoa zuen eta, Joxek. Lantegia ongi itxita zegoenez, Joxek sarraila hautsi behar izan zuen aitzurrarekin. Leku hark, egunez oso polita ez bazen, gauez ikara sortzen zuen, ilara amaigabeetan lerrokatuta zeuden josteko makina erraldioen orratzek piztiarik basatienaren hortz puntadunak baitziruditen leiho ñimiñoetatik sartzen zen ilargiaren argitan. Joxek zioen moduan, fabrikako ‘tour’-a egin ondoren, bi ate bakartiren aurrera iritsi ginen. Batek, ugazabaren izena zuen urre koloreko plaka batean inprimaturik; ‘Don Pedro del Pino’ zioen letra dotorez. Besteak, ez zuen inolako adierazpenik, baina giltzaz zarraturik zegoen. Hortaz, berriro ere, nire lagun indartsuak pare bat kolpe eman behar izan zizkion.

Gela ilun eta umel hura inoiz ikusi gabeak nituen makinek betetzen zuten. ‘Banekien’, esan zuen Joxek ahopeka. ‘Jakín, zer?’, esan nion nik, segundu gutxira ‘Manual de uso’ zioen liburuxka ajatua ematen zidala. Ezin nuen sinestu, eta are gutxiago konprenitu, irakurtzen ari nintzena. Han zioena egia bazen, don Pedro herritarren ametsak sortzen ibili zen, lozorroan zeuden bitartean bere gustuko ideiak sartzeko haien buruan.”

Aiurri, nahiz eta aitonari begirune gehiago izan aurreko aldiak elkartu zirenetik, sinesten zaila egiten zitzaion hura guztia: “Ametsak sortu? Mesedez... ez ditut bost urte” pentsatu zuen. Hala eta guztiz ere, eskarmentua hartuazuen, entzuten jarraitu zuen. Bilobaren sinesgogortasunak oharturik, azalpen eskean-edo zebilela ulertuta, betiko ahots lasaiaz jarraitu zuen:

“Makina haiek, irakurritakoaren arabera, usain eta kolore gabeko gasa sortzen zuten, susmaezina, beraz. Gas hura arnasten zutenak gasaren egilearen irudimenaren eta burutazioen menpe geratzen ziren, egileari -Don Pedrori gure kasuan- pentsatze soilaz biktimen ametsak bihurritzea ahalbidetuz. Segituan nintzen hura gainontzekoei aditzera emateko beharraz mintzatzen, baina nire lagunak, ni baino zurrabagoa zenak, nik iradoki bezain agudo konbentzitu ninduen ez egiteko. ‘Alferrikakoa litzateke, nagusiak aspalditik ditu eta guztiak kontrolatuta. Pozoi honen dosi txiki bat nahikoa litzateke denak gure aurka jartzeko’, esan zidan, ohi baino ezkorrago.

Biharamunean, garbi zegoen bezala hautsitako sarrailegatik, norbait muturra sartzen ibili zela jabetu zen Don Pedro. Herrian azkar zabaltzen fabrikaren lapurreta egin zuteneko berri faltsua -ez zuten eta ezer ebatsi-, agian, gau hartan aurkitu genuen agintariaren ezkutuko baliabidea zela medio. Giroa gaiztotu egin zen Urmintzan, lapurren buruei diru-saria jartzera ere heldu ziren. Horri kalean nenbilela jasotzen nituen begirada desatseginak gehituta, handik alde egiteko garaia banuela ebatzi nuen. Beraz, lekualdaketa eskatu nuen enpresan, herri madarikatu hartako egoera ilunak irentsi baino lehen. Handik bi hilabetera iritsi zen ordezkia.

PROSA

Nire ondasunak maletan sartu eta goizeko seietako trenean esan nion agur herriari. Joxek ,berriz, ez zuen nik beste zorte izan; izan ere, baserriari lotuta bizi zen bera. Ordutik, beti gogoan izan dut Joxe eta ehundaka otoitz egin ditut haren alde, nahiz eta ez dudan uste Urmintzako kalbariotik askatzerik izango zuenik.”

Aurrekoan ez bezala, istorioa amaitzeaz gustura, Martin izan zen sofatik altxatzen lehena. Aiurrek ez zekien zer pentsatu hartaz guztiaz: garbi zegoen ipuina aitona Martinen asmakizuna zela, alegiazkoa, ezta? Minutu batzuk egongelan lelo aurpegiarekin egon ondoren, bazuela joateko garaia erabaki zuen. Horrela, aitona-amonei agur esan eta etxera joan zen. Urmintzako herriaren pasadizoa ahaztu egin zitzaion, bere burmuineko sakonera ilunetaraino hondoratu zen, zoritxarreko itsasontziak ozeanoen hondo ilun zein hotzetara jausten diren moduan, inork aurkitzeko itxaropen eskasarekin. Salbuespena zen, ordea, kasu hura; izan ere, olagarro erraldoiak itsasertzeraino eramane zuen barku hura hainbat hamarkada geroago.

Leihotik begira zegoen Aiur, bere etxe aurretik igarotzen ziren gizasemei begira, aitona Martin zenaren kontakizuna etorri zitzaionean burura. Ez zion axola haren egiazkotasunak, denborarekin konturatua baitzen jendearengan ametsak sortzeko lokartua egotea ez zela ezinbesteko baldintza. Hara eta hona, zoriontsu itxura batera, zebiltzane behatuta, urmintzarren zorionatsun hutsaren pareko iruditu zitzaion ikusmira hura: askatasunik gabe bizi ziren, baina, era berean, ardurarik gabe; umetan bezala. Onartu nahi ez bazuen ere, inbidia apur bat ematen zion zoriontasun hark. Eta bera bazen ergela zena zoriontasun merke hura ez aprobetxatzearengatik? Ez, bere senak azkar baztertu zuen ideia hura, oinarritzat zituen euskarriak gehiegi jartzen baitzituen kolokan. Ondorioz, denbora galtze zeritzon hura alde batera utzita, bere oinarriak sendotuko eta baieztatuko zizkion liburu haietako bat hartu eta irakurtzen hasi zen: “Izkribuak hamaika orrialde ditu, holandarra deitzen...”